



KORRIKA ARABAN
IRRI, BARRE, ALGARA, ALA EZ GARA



Vitoria-Gasteiz

HOBETUZ

batu eta eraldatu

**BOTOA
EMAN!**

Martxoaren 4tik 24ra
vitoria-gasteiz.org/vghobetuz





alea

405

2024-05-22 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

AEK



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Juanma Gallego

Estibx Ugarite

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Saioa Perez de Muniain

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.000 ale

EGOITZA NAGUSIA

Zapatari kalea, 8

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 60 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailaren edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Iñaki Lazkano, Zuriñe Rodriguez.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Euskararen paisaiak harrotuz.
- 12 **Protagonista.** Kepa Urigoitia: "Gure asistentzia eredua errotik aldatu behar dugu".
- 16 **Iritzia.** Iñaki Lazkano, 'Ainubean'.
- 17 **Iritzia.** Zuriñe Rodriguez, 'Galdera bat'.
- 18 **Hondakinak.** Atez atekoa, apirilean Burgun.
- 19 **Euskaigintza.** Bermeak nahi ditu Lazarragak.
- 20 **Toloño mendilerroa.** Auziari berrekin nahi diote.
- 22 **Turismoa.** Trikuharriak, gurpil gainean.
- 24 **Bertsolaritza.** Arrizubietaren aroa abiatu da.
- 26 **Harrimena lantzeko ariketak.** Edu Zelaieta Anta, 'Altuera (ere erlatiboa da)'.
- 28 **Egunero ikasten delako.**
- 29 **Irakurleen Txokoa.**
- 30 **Euskararen Agenda.**

Opor egunak direla eta, datorren astean ez da aldizkaririk argitaratuko. Hurrengo zenbakia apirilaren 5ean izango duzue esku artean. Informazio eguneratua alea.eus webgunean. Laster arte!



**Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala**

araba álava
foru aldundia diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

Euskararen paisaiak harrotuz

Arabar euskaltzaleen oroimenean errotik finkatuta geratuko da beste behin Korrikarekin batera etorritako duintasun eta gogo erakustaldia. Aiaraldean eta Legutian ere 'txute' horren zain daude orain.



Hogeita hirugarren edizioak gurean egin behar dituen hiru sarreretatik aurrena eta luzeena egin du astelehenean, egun osoa eman baitu Arabako lurretan. Gaueko ordu txikietan jo du Kanpezun iratzargailuak, baina oraingoan bederen eguraldia lagun izan dute arabar euskaltzaleek. Izan ere, Eguzkia ere batu da euskararen aldeko herri lasterketara, goizean goizetik egunsenti ederra oparituz. Zenbaitetan sargori eta guzti, Herrera mendatean gora lekukoa eramán duten heroiek ondo dakitenez. Zerutik ez ezik, errepidean alderik alde pilatutako euskaltzaleen berotasuna jaso du Korrikak, eta, ohi bezala, herrietan sartu den uneetan emozioak are gehiago bildu dira, alde zaharretako kale estuetan kabituz ezinean. Esku txiki eta arrosetatik zein bizitzaren zeharkaldiak zimurtu dituen eskuetatik, horietatik guztietatik igaro da lekukoa, eta lerro hauek irakurri orduko hala jarraituko du bidea egiten, Euskal Herrian zehar egindako ibilbidea Baionan bukatu arte. ■■■

Testua: **Erredakzioa**

Argazkiak: **AEK eta ALEA**





Euskararen aldeko lekukoak milaka euskaltzale elkartu ditu astelehenean Araban, lurraldera egin duen lehendabiziko sartu-irtenean. ALEA / AEK





Kanpezun izan dira goiztiarrenak lekukoa hartzen, eta ia kuadrilla guztiak igaro ditu egun osoan zehar. Poza eta aldarrikapena batu dira bidean. A.E.K. / A.E.A.





Jarraitu Korrika zuzenean
Hamaika telebistan

www.hamaika.eus/23korrika



Deskargatu zure kilometroa


Bideoa bidaliko dizugu prest dagoenean!
















la ehun kilometro egin ditu Korrikak Gasteizen, eta, kolore ugariko aldarrikapenean artean, Gasteiz Antzokiaren aldekoa ere batu da. ALEA

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI MARRAZKILARIA



"Gure asistentzia eredua erotik aldatu behar dugu"

KEPA URIGOITIA ARABAKO MEDIKUEN ELKARGOKO PRESIDENTEA

Arabako Medikuen Elkargo Ofizialak (ICOMA) kanpaina bat jarri du abian "medikurik gabe" osasun-zentroetan artatzeak dituen ondorioez eta arriskuez ohartarazteko, eta osasun administrazioen "planifikazio falta" salatzeako. Elkargoaren 125 urteetako ibilbideaz eta dituen erronkez aritu da Kepa Urigoitia ALEArekin. Testua eta argazkiak: **Anakoz Amenabar.**

Hauteskunde gai nagusietako bat bilakatu aurretik, Arabako Medikuen Elkargotik (Icoma) maiz ohartarazi diete osasun administrazioei medikuen errelebo faltari aurre egiteko "baliabideak planifikatu"

behar direla. Oraingoan kalera atera dute kezka *Medikurik gabe ez dago medikuntzarik* kanpainarekin. Elkargoak duen erronka nagusietako bat da, Kepa Urigoitia (Donostia, 1953) presidenteak azaldu duenez, eta gaia "sakon aztertze" galdegin die alorreko arduradunei.

125 urte bete ditu Arabako Medikuen Elkargoak. Zergatik da beharrezkoa oraindik honen lana?

Labidea kontrolatu ahal izateko, profesionalak kontrolatu ahal izateko eta herritarren beharrak asetu ahal izateko, independentzia beharrezkoa da, ezin da aldi berean epaitu eta epaile izan. Elkargoek independentzia behar dute, eta hori mantentzen saiatzen gara aspalditik; botere politiko, ekonomiko eta erlijiosoetatik kanpo. Elkargorik ez balego, norbaitek hartu beharko luke lan hori, eta garaian garaiko gobernuaz litzateke; gobernuaren arabera erabakien esku

egongo ginateke. Medikuen lanak eta ofizioak berak irizpide ekonomiko, politiko eta erlijioso horietatik kanpo egon behar dute.

Administrazioarekin nolako harremana duzue?

Diplomatikoki, esan dezagun, ondo. Funtseko gaietan oso gutxi izan dute kontuan gure iritzia, konpontzeke dagoen ikasgaia da hori, eta espero dut hala izatea. Gobernatzen duenaren arabera, oso modu desberdinetan begiratzen digute, unean uneko interesen mende; kolaboratzaile gisa batzuetan eta ez hain ondo bestetan, ofizioaren alde edo elkargokideen alde gogoko ez dituzten gauzak esaten ditugunean.

Nolako osasuna du Icomak une honetan?

Bikaina. 125 urte baditu ere, ez dago batere zahartuta, lehen egunean bezain gazte dago, eta orduko ilusio berarekin. Hasierako printzipio haiei eusten die, medikuen lanaren kontrola izatea; orduan, esaterako, mediku titulua izatea zaintzen zuten, *berritsu* asko baitzegoen tartean. Garrantzitsua da gaur egun hori ere, formazioa bermatzea eta mantentzea, etengabeko prestakuntza bermatzea; eta hori indartzen ari gara, gure eginbeharra delako, etika eta deontologia profesionala zaintzearekin batera.



Jakina, urteetan hori mantendu izanak ez du esan nahi geldirik gaudenik, ez; garaietara egokitzen joan gara, eta gertatzen diren aldaketetara egokitzen jarraitu beharko dugu.

Eta medikuen osasuna nolakoa da?

"Osasuna" hitza nola interpretatzen dudan, gauza asko esan diezazuket. Ezagutzari dagokionez, osasun bikaina da, ezagutzak abiadura izugarrian doazelako; inoiz baino hobeto prestatuta daude. Horrek ahalegin bat eskatzen du, ez baita bakarrik lanean egotea, baizik eta aipatzen genuen etengabeko prestakuntza horretan saiatzea. Eta egungo gainkarga baldintzetan, egungo eskakizun baldintzetan, gainkarga eta profesional gabeziaren ondorioz, baliteke osasun mentala osasun zientifikoa bezain ona ez izatea. Jakina, honek ondorio batzuk dakartza. Eta gainkarga horren eraginez, asko ilusioa galtzen ari dira profesioarekin.

Noiztik dator gainkarga hori? Pandemia garaitik?

Aspalditik nabaritzen ari gara, profesional faltaren gai hau ez baita berria, urte asko daramatza. Administrazioak duela urte asko ezagutu zuen arazoa, eta ez zaio konponbide bat jarri. Pandemia iritsi zen, eta sistemak zituen pitzadura

guztiak agerian geratu ziren; zauri horiek azalera ateratzen ziren eta profesionalak oso gaizki pasa zuten. Ahal izan zuten moduan eutsi zioten, baina pandemia igaro denean albo-ondorioak agertzen hasten dira. Eta, une honetan, ondorioak pairatzeaz gainera, indartu egin ez diren hainbat kategoriarekiko interesa are eskasagoa da jende askorentzat; batez ere, lehen arretaz ari naiz. Gizartea, bestalde, aldatu egin da, eta MIR azterketaren ondorengo espezialitate hautaketei erreparatzen badiugu, ikasleen irizpideak aldatu direla ikusiko dugu; orain, nota onenak dituzten medikuek dermatologia moduko espezialitateetara jotzen dute, familia eta lana bateratzeko aukera ematen dielako eta guardiak egin behar ez dituztelako; lehen mailako arreta ez da hain gustagarria, eta plazak bete gabe geratzen ari dira.

24 orduko guardiekin amaitzeko neurriak entzuten dira kanpainako mezuen artean...

Kontu zaharra da. 1960 eta 1970 hamarkadetan bi sistema proposatzen ziren: guardiak edo txandak. Orduan guardien aldeko hautua egin zen, eta poliki-poliki zenbait zerbitzutan hauek aldatzen joan dira txandak jarri direlako. Lehen arretak,

noski, goizeko eta arratsaldeko txandak ditu aspaldi. Guztietan txandak ezarriko dituztela? Ez dakit, gauza asko berrikusi behar dira horretarako; besteak beste, medikuen baldintza ekonomikoak; mediku batek guardiengatik kobratzen duena bere soldataren osagarri garrantzitsu bat da, eta hori kentzen bazaio are interes gutxiago izan dezake lan horrek. Gauza asko daude aztertzeiko eta mahai gainean jartzeko, guardiak edo txandak aukeratu aurretik.

Zifra kontua da mediku faltaren arazoa?

Gauza asko dira. Baina, une honetan, herrialde honetan medikuei egiten zaien aitortza eskasa da, gure inguruko herrialde batzuetan egiten zaien aintzatespena kontuan hartuta; errekonozimendu administratibo eta sozialei buruz ari naiz. Eta aintzatespen ekonomikoez ari bagara, hurbileko herrialdeak Espainiako profesionalen soldata hirukoizten edo lauukoizten ari dira. Herrialde horiek profesionalak eramaten ari dira, alde egiten ari dira, batik bat familiagatik leku zehatz batera lotuta ez dauden profesionalak, eta gaur egun denek hizkuntzak menperatzen dituztela kontuan hartuta... Ekonomikoa baldintza garrantzitsua da.

Landa eremuan gehiago nabaritzen da falta hori?

Jakina, lanpostu zailagoak dira betetzeko. Landa ingurunea ez da erakargarria jende askorentzat. Lehen mailako arreta sustatu ez den bezala, plaza horiek ez dituzte erakargarri egin, ez dira behar bezala baloratu lehen mailako arretako medikuak, eta are gutxiago landa inguruneke lehen mailako arretako profesionalak, eta, noski, horrek ondorio batzuk ditu.

Pazientearen eta medikuaren arteko harremana nolakoa da gaur egun?

Azken urteetan medikuak denbora gutxiago izan du. Eta jarduera medikoak badu alde zientifiko bat, eta baita humanista bat ere. Alde zientifikoa ez da murriztu, baina alde humanoak denbora behar du, eta denbora hori gabe zaila da egotea. Ezin dugu esan enpatia edo harreman hori murriztu denik medikuaren erruz, baizik eta denbora faltagatik kasu batzuetan.

'Medikurik gabe ez dago medikuntzarik' dio Arabako Medikuei Elkargoaren azkeneko kanpainak.

Pellokeria itxura izan dezake kanpainak, baina hala da, medikurik gabe ez dago medikuntzarik. Aspaldi administrazioari eman genion abisu bat da. Zer dugun eta zer behar dugun aztertu behar da; aspaldi egin behar zen, eta orain korrika egiteak ez dakar konponbide onik. Kontuan hartu



"HERRIALDE HONETAN MEDIKUEI EGITEN ZAIEN AITORTZA ESKASA DA; ALDE EGITEN ARI DIRA"

"ORAIN HARTZEN DEN EDOZEIN NEURRIK EZ DU BEREHALAKO EMAITZARIK IZANGO"

"ERABAT KONBENTZITUTA NAGO PUBLIKO ETA PRIBATUAREN ARTEKO ELKARLANAREN BEHARRAZ"

11 edo 12 urte bitartean behar ditugula mediku bat prestatzeko, eta, beraz, orain hartzen den edozein neurrik ez duela berehalako emaitzarik izango. Espezialitatean sartu ezinik geratzen diren lagun asko ditugu, eta sistema publikoan jarduteko espezialitatea beharrezkoa da; medikuak prestatzen ditugu, baina ez dugu espezialistarik prestatzen, eta jakina, defizit bat dugu. Duela gutxi egindako azterlan baten arabera, 2021etik 2025era ia 10.000 ikasle aterako dira fakultateetatik, familia medikuntzan, eta denbora-tarte horretan 12.600 inguruk erretiroa hartuko dute; hau da, datorren urtean Espainia osoan 2.600 inguru faltako dira lehen mailako arretan. Zerbait ez dugu ondo egin.

Erronka nagusia hori da, beraz?

Gure asistentzia eredia errotik aldatu behar dugu, buelta eman. Horretarako sakon aztertu behar da, eta profesionalen iritzia kontuan hartu. Pandemia izan genuen horren adibidea; burua atera ahal izan bagenuen, ez zen izan goitik eman ziren argibideengatik, beheko profesionalengatik baizik; oso gauza ona egin zuten agintariek orduan, beheko profesionalen beharrak zeintzuk ziren entzun zuten, eta nahi izan zuten moduan antolatzen utzi zieten. Profesional falta horri nola aurre egiten diogun aztertu behar dugu. Gehienetan, politikariek epe laburreko ikuspegia dute; lau urterako datoz, eta nabarmentzen den zerbait egin behar dute. "Goazen txandak jartzera! Guardiak jar ditzagun! Igo 10 euro soldata!". Elkargoan beharrezko aldaketarako neurri sendo batzuk planteatu ziren, baina ez diete heldu.

Pribatua ote da arazoaren parte?

Medikuntza pribatua deabrutzen dutenen aldean, ni defendatzaile sutsua naiz. Eta erabat konbentzita nago elkarlaneko bizikidetzaren beharraz, medikuntza pribatuaren eta publikoaren arteko lanaz. Une honetan medikuntza pribatua desagertuko balitz, sistema kolapsatu egingo litzateke. Medikuntza pribatuaren etsai nagusienak ere kalera aterako lirateke orduan.

Publikoa behar beste indartu ez delako, beharbada?

Zure ustez, une honetan pribatua egin diren inbertsioak onar al ditzake sistemak? Ez al da errentagarriagoa inbertsio horiek erabili ahal izatea? Hemen gizarte-segurantzak hartu zenean %70 (publikoa) eta %30 (pribatua) arteko lankidetzaz hitz egiten zen, eta Katalunian kontrakoa zen, %30 eta %70, eta hala funtzionatzen jarraitzen dute.

Zer portzentaje da egokia, zure ustez?

Ez dut portzentaje idealik. Ez dut uste medikuntza publikoa alde batera utzi behar denik eta inbertitu behar ez denik, ez, noski. Inbertitzen jarraitu behar da, ahal den heinean, eta beraz, portzentajea aldakorra da. Herritarrek merezi duten osasun zerbitzua eskaintzeko adinakoa izan beharko luke inbertsio horrek. Baina beste modu batera iritsi ezin den ataletan, medikuntza publikoak ez du zalantzarik izan behar pribatuak eskaintzen dituenak hartzeko.

Bien bitartean, adimen artifiziala ere heldu da...

Uste dut aliatua izango dela, baina hasi berri den guztiak arriskuak ditu, eta, gainera, guztion aldetik egokitzapena eskatzen du. Adimen artifiziala medikuntzan ere gutxi barru nabarmena izango dela uste dut. Duela lau bat urte irakurri nuen txinatarrek badituztela beren makinatxoak pazienteak artatzeko; galderei erantzun, eta medikuak egiten duen gauza bera egiten du; azken batean, medikuak sintoma eta datu kliniko batzuk lotzen ditu, eta, horretan oinarrituta, hainbat gaixotasunen diagnostiko diferentziala egiten du. Iritsiko al gara horretara? Iritsiko balitz, zientzia litzateke, baina medikuntza ez; giza faktorea ezinbestekoa du medikuntzak. Enpatia faltako litzateke, hauetan ahots artifizial batek lasai egoteko eskatzen badizu ere. Noski, eremu batzuetan asko lagunduko du, kontsultetako hainbat zereginetan dudarik gabe. Etorkizunerako erronka asko ditugu. Klima aldaketa ere badugu; pauso batzuk eman ditugun arren, egunean jarri behar dugu denok, profesioaletatik hasi eta hiritarretaraino. ■



EKAIN
ABOKATUAK

VITORIA - GASTEIZ
Herentia kalea, 28 - 01001
T 945 27 27 00 F 945 27 86 82
ekain@ekain.eus

DONOSTIA
Portuetxe, 53A - 218 Bulegoa - 20018
T 943 32 04 75 F 943 32 04 75
ekain.donostia@ekain.eus

www.ekain.eus

UDAL ETA HERRI
ERAKUNDEEN
AHOLKULARITZA



Ainubean



IÑAKI LAZKANO
KULTUR TEKNIKARIA

Bada Gasteizen Aihotz plaza, behinolako Goiuriari, goiko hiriari, atxiki zitzaion plaza eguzkitsua; baina, aitzitik, bada inguruetan, Alde Zaharreko kale eta kantoi estuetan, leku laiotzik ere, ainubean dagoen txokorik.

Horrelako leku batean, Errementari kaleko Ruiz de Bergara jauregian, eguzkiak gutxi berotzen duen bazter horretako batean, erabaki zen duela sei bat urte kalea argitu eta berotuko zuen kultur gune euskaltzalearen proiektua abian jartzea. Urteetan hutsik eta hotz egondako eraikina, birgaitu, prestatu eta euskaldunentzako, euskararentzako eta euskal kulturarentzako topagune nahiz sorgune bilakatzeko asmo sendoa erakutsi zuten hiriko euskaltzaleek eta Gasteizko Udalak.

Hartu ziren erabaki egokiak, landu zen kultur programa erakargarria hartzeko gai izango zen proiektu arkitektonikoa, eta ekin zitzaion lanari. Lizitazioa publiko egin zen, eta obra esleitu. 2022ko udazkenean lan hauek amaitutzat eman, eta era berean, hurrengo urteko udaberrian zabalduko zela iragarri eta agindu; hala ere, urtebete pasa da, eta oraindik kulturaren eta euskararen etxe izan behar zuenak itxita dirau.

Hotz eta huts, ainubean.

Herritarron antolakuntzatik eta gogo eraldatzailetik sortutako proiektuetan sinesten dugunoi ulergaitza egiten zaigu horrelako egitasmoak erakundeekin batera, edo behinik behin, erakundeen laguntzaz, abian jartzen ditugunean, bidean sortzen diren arazoei, instituzioek hauei aurre egiteko erakusten duten gaitasun mugatua zenbaitetan eta ezintasun osoa besteetan.

Arazoei eta zailtasunei erantzukizunez egin behar zaie aurre, erronkak eskatzen duen arduraz, eta gehiegizko luzamenduetan ibili gabe. Oraingoan, Izaskun Arrue Kultur gunea martxan jartzeko ahaleaginean uste dut ez dela horrela jokatu; baina, oraindik, garaiz gabiltza egin beharrekoak zuzentzeko.

Izan ere, gure idazle batek ondo esan bezala, "Euskarak behar du hezurdura bat, anatomia bat, arnas aparatua eta nerbio sistema bat. Behar du lepo bat zeinen gainean segi aurrera".

*Beraz, uste dut orain dela une egokia, orain dela abagunea,
huts eta hotz dagoena, euskaraz betetzeko eta kulturaz berotzeko;
ainubean denari, eguzkia emateko;
maite dugun hori,
zaintzeko. ■■■*

**"ARAZOEI ETA
ZAILTASUNEI
ERANTZUKIZUNEZ EGIN
BEHAR ZAIE AURRE,
ARDURAZ"**

Galdera bat



ZURIÑE RODRIGUEZ
KAZETARIA

Bakarrik migratu zuen haur bat nirekin bizi izan zen azken urteetan. Aljerian jaio zen. Orain dela urtebete bere buruaz beste egin zuen. Ordutik bere lagunekin Instagrametik hitz egiten dut maiz. Gazte hizkera, emotikono eta *reels* asko. Hori da gure hizkuntza.

Story-ak komentatzen dizkiet nik, eta "atsegin dut" ematen didate haiek nire argazkietara. Noizean behin emotikonoak alde batera utzi eta zer moduz gauden galdetzen diogu elkarri. Kostatzen zaigu, baina hitz egiten hasten garenean tartetxo goxo bat ematen dugu solasean. Iraganeko oroitzapenak izaten dira ia beti, doluak eragiten duen minari ihes egiteko topatu dugun teknika infaliblea da.

Astelehen honetan, 19:00etan, mezu bat nuen: "Zuri, una preguntita: ¿Por dónde pasa Korrika? No sabemos muy bien qué es pero queremos ir". Mezua 23:00etan irakurri nuen. Berandu ailegatu naiz! A ze disgustua! Momentu horretan nire hildakoarekin bat egiten dut, eta tristetu egin naiz. Bizirik egongo balitz, berarekin korrika ibiliko nintzateke Gasteizko kaleetan. Herriaz harro eta gure harremanaz harro.

Euskara ikasi nahi zuela esan zidan suizidatu baino hilabete bat lehenago. Bere ama hizkuntza, ordea, dariya zen. Bere hizkuntza dariya zen, baina Espainiara iritsi zenean gaztelaniaz hitz egin zioten. Ideiarik ez zuen. Euskal Herrira iritsi zenean frantsesezko itzultzaile bat jarri zioten. Kolonizazio linguistiko bedeinkatua!

Nire Instagrameko lagunari azkar idatzi diot. Zehatz-mehatz kontatu nahi diot zer den Korrika. Garaiz ez erantzuteagatik ere barkamena eskatu nahi diot, eta ostegunean Arabako herrietan barrena korrika egitera gonbidatu nahi dut. Goazen gure lehenengo plan ez birtuala egitera! Baina berak dena daki jada. Lau *story* igo ditu bere profiler. Han zegoen, Zabalganean. Korrika! Joan da! Hunkitu egin naiz.

Ez nau Korrikak hunkitzen, bera da. Egia esan, bien uztarketa da nire negargura. Euskararen subjektua handitzen doala egiaztatzea da. Kostatzen ari zaigu, baina bagoaz. Euskara jada ez da zuria, ez da heterosexuala, ezta gizona ere, eta are gutxiago gipuzkoarra. Gipuzkoarra *ni de palo*! Eskerrak. Euskara gu anitz eta heterogeneo bat da! ■■■

**"KOSTATZEN ARI
ZAIGU, BAINA BAGOAZ.
EUSKARA JADA EZ DA
ZURIA, EZ DA
HETEROSEXUALA..."**



Burguko Udalak baratza ekologiko komunitarioa bezalako ekimenak jarri ditu abian azken urteetan. IREKIA

Apirilean, atez atekoa Burgun

Etxeko materia organikoaren bilketa berriarekin hasiko dira apirilaren 4tik aurrera. Errefuserako edukiontzi berriak eta konpostagailuak ere izango dituzte udalerrian.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Burguko Udalak apiriletik aurrera hondakin organikoen etxez etxeko bilketa martxan jarriko du. Astelehenetan eta ostegunetan, etxeko atean ontzia utzi beharko dute burgutarrek, eta bilketa goizeko 10:00ak baino lehen egingo dute. Konpostagailuak ere prest daude udalerrian, eta giltzak banatu zaizkie herritarrei horiek erabili ahal izateko; alta, etxez etxeko bilketa bezala, apirilaren 4a baino lehen ezin izango dira

erabili. Errefusarako edukiontzia, berriz, astelehen eta ostegunetan 24 orduz erabili ahalko dute. Txartela hurbildu beharko dute irakurgailura, eta argi berdea ikusten dutenean tapa ireki eta zaborra bertan bota ahalko dute.

Burguko Udalak ohartarazi duenez, jaiegunetan ez da etxez etxeko bilketarik egingo, eta hurrengo egunean egingo da. Birziklatzeko kita jaso ez dutenek udaletxera deitu beharko dute eta bertan emango diete.

Ingurumenaren babesak eta hondakinen lege berriak hondakin guztiak bereizita biltzera behar-tzen dituzte administrazioak. Legeak ezartzen duen %50eko birziklapena gainditzea da helburua, eta bide horretan hainbat urrats egin ari da azken urteetan Burguko Udala. Hala, 2023an herri galdeketa egin zuen udalak etxez etxeko sistemaren inguruan herritarren iritzia jasotzeko. Ondoren, irailean, hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren ordenantza arautzaile berria onartu zuen; informazio kanpaina ere egin dute, eta hainbat batzar egin dira herrietan. Herri bakoitzean bilera egin ostean, etxeetara joan dira hondakinak biltzeko sistema berria azaltzeko eta birziklatzeko kita banatzera.

Arabako Errioxako Kripan eta Eltziego herriak aitzindari izan dira lurraldean atez ateko zabor bilketan. 2022an jarri zuten martxan bi herri horietan sistema berria, arrakasta handiz.

Bermeak nahi ditu Lazarragak

Gasteizko Udaleko euskara batzordean herritarren txanda erabili du Lazarraga Elkarteak Gasteiz Antzokia lehenbailehen zabaltzeko beharrezkoak ikusten dituen bermeak eta baldintzak galdegiteko.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Pilota Lazarragaren teilatuan ikusten du Gasteizko Udalak. Lazarragak, berriaz, etorkizuneko proiektu bat aurrera eraman ahal izateko bermeak nahi ditu, eta gaur ez ditu ikusten. Udaleko euskara batzordean, herritarren txanda baliatu du asteon Lazarraga Elkarteak Izaskun Arrue Kulturgunean Gasteiz Antzokia eta Euskararen Etxea garatzeko dauden arazoak mahai gainean jartzeko.

"Udalak erantzun du proiektuaren alde dagoela eta lehenbailehen ikusi nahi duela martxan", azaldu dio Iñaki Lazkano Lazarragako kideak ALEAri. Baldintza da udalak proposatutako hitzarmena

sinatzea. "Hitzarmena sinatzen baldin badugu, hurrengo egunean egon gaitezke bertan lanean; baina oraindik ez dakigu udaleko kontu hartzaileak 2023ko hitzarmenaren justifikazio ekonomikoa ontzat emango duen ala ez. Elkarteari ezinbestekoa iruditzen zaio 2024ko hitzarmena sinatu baino lehen, 2023ko hitzarmenaren zuriaketa argituta izatea", azpimarratu du Lazkanok.

Kontuen zuriaketarekin batera, hitzarmenaren zirriborroari egingandako hainbat iruzkinen eta ekarpenen erantzunaren zain dago Lazarraga. "Elkarteak herritarren txandaren eskaera egin zuen egunean, martxoaren 8an, oraindik

ez zuen esku artean inolako hitzarmen proposamenik 2024rako. Handik egun batzuetara, martxoaren 11n jaso zuen udaleko arduradunengandik lehen diru laguntza hitzarmen zirriborroa, berehala aztertu, eta dagoeneko udalak baditu elkartearen iruzkinak, zalantzak eta ekarpen proposamenak", azaldu dute euskara batzordean.

Beste arazo bat dago Gasteiz Antzokia lehenbailehen zabaltzeko: eraikina oraingoz ez dago erabat hornituta kulturgun batek eskatzen dituen funtzioak bete ahal izateko, "oraindik gabezia ugari ditu". Arazo horri lotuta bi kontu proposatu ditu elkarteak: "Udalak kulturgunerako beharrezkoak diren ikus-entzunezkoen lizitazioa apirilean bertan ateratzea, eta urgentziatzeko tramitazioa ezar diezaiola".

Diru kontuen justifikazioaren onespena noiz egon daitekeen ez daki Lazarragak, baina argi du elkarteak antzokiaren berehalako irekiera eskatzeko dozenaka lagunek sinatutako agiriak presioa egiteko balio izan duela. "Egiten ari garen presioak balioko du arintzeko", esan du Lazkanok.



Lekukoa hartu aurretik, Gasteiz Antzokiaren parean elkartu dira euskaltzaleak kulturgunea berehala irekitzeko eskatzeko. ALEA



Lapuebla de Labarcán egindako topaketa batean aurkeztu dituzte Kantabria izendapena erabiltzearen aldeko argudioak. J.G.

Auziari berrekin nahi diote

Kantabria Mendilerroaren aldeko Plataformako kideak itxaropentsu azaldu dira Toloño/Kantabria izendapenaren gaineko eztabaida Espainiako Kongresuaren batzorde batera eramango dutelako.

JUANMA GALLEGO

Arabako Errioxa eta Mendialdea banatzen dituen mendilerroari Toloño ala Kantabria deitu behar al zaio? Aspalditik datorren polemika ez da baretu Euskaltzaindiak lehen hautuaren alde egin zuen izendapen ofizialarekin. Are, azken hilabeteotan Kantabria Mendilerroaren aldeko Plataforma martxan da berriro, eta ekimenak berreskuratu ditu. Horieta bat Espainiako Kongresuan gauzatuko da, PSE-EE alderdiak bertako batzorde batean eztabaidatzeko ez legezko proposamen bat

erregistratu duelako. Sare sozialetan ere berreskuratu dute Kantabria izendapenaren aldeko aldarria, eta, norabide berean, joan den astean kazetariekin topaketa bat antolatu zuten Lapuebla de Labarcán, gaur egungo egoera zertan den azaltzeko.

Bildutakoan aurrean, aspaldiko argudioei eutsi die

"KONGRESUAN GAIA JORRATZEAK AUZI HAU EZAGUTARAZIKO DUELA ESPERO DUGU"

RAKEL ZABALA, LANTZIEGOKO ZINEGOTZIA

Salvador Velilla etnografoak, eta argudio berriak jarri ditu mahai gainean ere, azken urteetan artxiboetan egindako lanaren ondorioz Kantabria izendapenaren erabilera babesten duten erreferentzia berriak aurkitu dituelako. Dena dela, egunerokotasunean bertako biztanleek modu naturalean Kantabria izendapena erabili izana da plataforman bilduta dauden lagunek gehien erabiltzen duten argudioa.

"Idatzita geratzen ez dena galdu egiten da, eta ohiturak mantendu behar dira; bestela gure historiaren parte bat

galduko dugulako", dio Blanca Casado plataformako kideak. "Nik ez dut nahi nire bilobek erabiltzea beren guraso eta aitona-amonek erabili ez duten izendapen bat".

Txostenen joan-etorria

Soka luzeko eztabaida da hau, 35 urtez mantendu izan dena. Abiapuntua 1989an dago, Euskaltzaindiak Jose Antonio Gonzalez Salazar etnografoari txosten bat eskatu zionean. Bertan Toloño izendapenaren alde egin zuen. "Gonzalez Salazarrek oso lan interesgarriak ditu, baina txosten horrek ageriko gabeziak zituen", dio Velillak. Hamar urte geroago Euskaltzaindiak izendapena berretsi zuen, eta 2010ean Roberto Gonzalez de Viñasprek horren alde egin zuen berriro. Sei urte geroago, Jaurilaritzak Euskararen Aholku Batzordeko kide Mikel Belaskori txosten bat eskatu zion, eta bertan adituak gomendatu zuen maparen eskalaren arabera hiru izendapen erabiltzea —Toloño, Kantabria eta Kodes—, baina mendilerro osoa izendatzean Kantabria erabiltzea. Plataformako kideak horren alde azaldu dira, eta salatu dute azken txosten hori "kaxoi batean gordeta" mantendu nahi izan dutela, eskualdeko eragileei horren berri eman gabe. "Lotsagarria da egiten ari direna", kexu mintzo da Velilla.



Plataformaren arabera, Toloño izenak ezin du mendilerro osoa hartu. J.G.

Azken aldaketa garrantzitsua 2017an etorri zen, IGN Espainiako Geografia Institutu Nazionalak ebatzi zuenean EAEk, Nafarroak eta Errioxak partekatzen duten mendilerroaren toponimo ofiziala Toloño Mendilerroa dela, baina Kantabria Mendilerroa aldaera bezala onartu zuenean. Plataformako kideen arabera, azken hau institutu horretako bi funtzionariori esker izan zen, eta, momentuz, horri eusten diote argudiatzeko Kantabria izena erabili daitekeela, modu ofizialean ere. "Funtzionario horiek esan ziguten epaitegietara joz gero, irabazita izango genukeela auzia", aurreratu du Velillak. Aldaerak aldaera, beren estilo liburuaren arabera euskarazko hedabideek Euskaltzaindiaren arauen

araberako izendapena erabili behar dutela jakinarazi diete ere plataformako kideei.

Ohitura, historia eta egungo erabilera argudiatzeaz gain, udal eta elkarte askoren babesak dutela gogoratu dute, bai eta 2.000 sinadura inguru ere.

Momentuz, Kongresuan aurkeztutako eskaeran dute itzaropena. "PSEk aurkeztu duen ekimena ez da loteslea izango, baina gutxienez baliogarria izango da auzi honen inguruko ezagutza zabaltzeko", adierazi du Lantziegoko zinegotzi Rakel Zabalak. Bitartean, plataformak hedabideekin izandako topaketa erabili du ere aurrerantzean egingo dituen ekimenak gorpuzten joateko. Baina hori postrekin batera etorri den kontua izan da. *Off the record.* ■



Parral
taberna

**menu begetarianoa eta gosariak
asteazkenean zehar - asteburuetan razioak
astearteko aktibazio kulturalak**

PARRALTABERNA@GMAIL.COM

SAN FRANTZISKO XABIER KANTOIA 4

TLF 945276833

GASTEIZ-ARABA



Ibilbideak biltzen dituen zortzi trikuharrien artean, Sorginaren Txabolarena da ezagunetakoa. PHOT.OK

Trikuharriak, gurpil gainean

Historia gurpil gainean ezagutzeko Arabako Errioxako Trikuharrien Ibilbidea egokitu du Eusko Jaurlaritzako Turismo sailak. Ibilbideak malda handiak ditu, eta sasoi onean daudenentzat da egokia.

ERREDAKZIOA

Bizikleta eta Arabako paisaien aniztasunaren zaleak zorioneko daude hastear dauden opor egunekin. Izan ere, Arabako Errioxako Trikuharrien Ibilbidea aurkeztu dute urte hasieran Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Diputazioak. Ibilbidea zirkularra da, 53,22 kilometrokoa, orain arte seinalezatu gabe zegoena, eta lurraldeko historiaren eta natura ingurunearen mugarriak erakusten ditu. Pedalei eraginez iraganera joateko planteatuta dago ibilbidea, 5.000 bat urte atzera

egin eta Arabako Errioxako lehenengo biztanleen historiara iristeko; zehazki, haien ehorzketa modura. Zortzi trikuharri ikusteko aukera dago bizikleta bidea jarraituz gero; baina nabarmendu egin behar da ibilbideak malda handiak dauzkala eta, beraz, bizikleta elektrikorako edo sasoi onean daudenentzat dela egokia.

Villa-Lucia gastronomia guneko aparkalekua da abiapuntua, Guardian; baina ibilbidea zirkularra denez, ukitzen dituen gainerako herriak ere ibilbidearen hasiera eta amaiera izan daitezke.

Guardiatik hasita, lehen trikuharria Bilar herrian dago, El Encinal. Trikuharri hau handia da, eta gutxi gorabehera 6,5 metroko luzera duen korridorea dauka. Azken esku-hartzei esker, trikuharria kontserbazio-egoera onean dago, eta garai desberdinetako materialak berreskuratu ahal izan dira.

Ondoren Kripan udalerrira eramaten dute seinaleek, hurrengo trikuharria ikusteko: Los Llanos. Bertan, ehun pertsona inguru ehortzi zituzten mila bat urtean. Halaber, silexezko erremintak eta hezurrez egindako gauzak

berreskuratu ahal izan dira, eta, horien artean, besteak beste, ahuntzen edo ardien tibiekin egindakoak nabarmentzen dira.

Kondaira eta guzti

Sorginaren Txabola da Arabako Errioxako trikuharri ezagunetako bat, eta Euskal Herriko garrantzitsuenetako bat. Bertara hurbilduko dira txirrindulariak hirugarren etapari. Kondaira zahar bati zor dio izena: San Juan eguneko goiz guztietan, sorgin batek kantu batzuk abesten zituen, eta harri bihurtzen zuen begiratzera hurbiltzen zen oro.

Handik Alto de La Hueserara jotzen du bideak. Brontze Aroaren hasierara arte egin ziren ehorzketak bertan, eta trikuharriaren barruan, 130 gizabanako ingururen hondakinak aurkitu zituzten. Hurrengo trikuharria ikusteko, Layazakoa, 600 metro igo behar dira Herrera porturantz.

Samaniego udalerritik igaro ondoren, El Montecillo trikuharria aurkituko dute txirrindulariek. Arabako Errioxan aurkitutako azken trikuharria da; 2009an aurkitu zuten, eta adituek badakite bi erabilera izan zituela: batetik, harriak pilatzeko tokia izan zen, eta, bestetik, harrobia.

Lezatik igaro eta gero, metro batzuk aurrera eginda, El Sotillo trikuharria agertuko da begien aurrean. Trikuharri hau 1.500 bat urtez erabili zuten, eta



El Sotillo trikuharria Lezatik igaro eta gero aurkituko dute txirrindulariek. PHOT.OK

HIRUGARREN ETAPAN, SORGINAREN TXABOLARA HURBILDUKO DIRA TXIRRINDULARIAK

korridorea, hilobi-ganbera eta bederatzi lauzak eratutako oinplano arrauzkara dauzka; lauza batzuk 2,20 metroko altuerara iristen dira.

Ibilbidean dagoen azken trikuharria ikusteko, San Martingoa, Paganos udalerrira sartu aurretik desbideraketa bat hartu behar da. Bitxia da egitura: gainean, ohiko txabola bat eraiki zioten, trikuharriaren tumuluko harriekin egindako

kupula faltsu batekin estalia, eguraldi txarretik babesteko. Hain zuzen ere, ezaugarri horrek egiten du trikuharria hain ezaguterraza.

"Arabako Errioxakoa bezalako ibilbideek aukera ematen digute gure turismo eskaintza handitzeko, eta Euskadiko zikloturismoaren helburuak indartzen dituzte: desestacionalizazioa, turismo-luxuak lurraldean banatzea eta egonaldia handitzea. Horrela, ibilbideen bidez lurraldea egituratzen laguntzen dugu, eta turismo jarduerak sortzen duen aberastasuna helmuga osoan banatzen dugu", azaldu du Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu Javier Hurtadok. ■

M Mencia Optika

150 urte
zure ondoan

www.menciaoptika.eus



Bertsolari gasteiztarra bigarren aldiz iritsi da Arabako finalera, eta oraingo honetan txapela buruan atera da. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Arrizubietaren aroa abiatu da

Aurtengo Arabako Bertso Txapelketa irabazi du bertsolari gasteiztarrak, Principal antzokian izandako finalean bertan erretiroa iragarri duen Manex Agirre aramaioarrekin izandako lehia estu baten ondoren.

ERREDAKZIOA

Buruz burukorako bere izena entzutea ez zuela espero dio Aroa Arrizubieta Barredo Arabako txapeldun berriak. Alabaina, parez pare Manex Agirre izango zuela jakitean, ezinbestean kirioak dantzan jartzen dituen une berezi horretan ere "lasaitasun" pixka bat eskuratu omen zuen, baita "poza" ere. 23 urteko txapeldun gasteiztarraren esanetan, horrenbesteko eskarmentua duen bertsolari batekin lehiatzeak "eroso" sentiarazi zuen, jakin bazekielako ez ziola

"gairik itxiko", eta laguntzeko izango zuela alboan.

Aramaioarrarentzat ere saio berezia izan zen joan den asteburuan Gasteizko Principal antzokian izandakoa, bertan publiko egin zuelako — bertsotan, nola ez—, txapelketan erretiroa hartuko

**LORTUTAKO TXAPELA
"AITORTZA" BAT
IZANGO DELA ESPERO
DU ARRIZUBIETAK, ETA
EZ "PRESIO" BAT**

zuela, baina, halere, horrek ez duela suposatuko "isilik" gertatuko denik. Aitzitik, aurreratu du "gauza ederrenak" beti esaten direla "itzalen artetik".

Final lehiatua izan da, epaimahaikide aritu diren Fernando Sopelana, Aitor Jimenez, Ekaitz Elorriaga, Iker Elexpuru eta Patxi Aizpuruaren zenbatespenen arabera puntu bakarreko aldea egon delako gasteiztarraren eta aramaioarraren artean. 614,5 puntu eskuratu ditu Arrizubietak; 613,5, Agirrek. Paula Amilburu izan da

hirugarrena (415 puntu); Peru Abarrategi, laugarren (412,5); Asier Otamendi, bosgarren (410,5); eta Iñaki Viñaspre, seigarren (381,5).

Txapela jantzita atera izana "aitortza" bat izatea nahiko luke Arrizubietak, eta ez, oster, "presio" bat. Dioenez, plazaz plaza aritzea da berak gehien gustuko duena, eta espero du hemendik aurrera txapelak ematen duen distira bide horretan itsasargia izango duela. Ukabil bat altxatuta eman du azken agurra gasteiztarrek, eta bere amaierako bertsoak GKS antolakundeari egindako "betoa" salatu du, "politiko eta enpresen aurrean" altxatuko direla ziurtatuz.

Gasteiz Antzokiaren "epela"

Xabi Rico euskaltzale ezagunari egokitu zaio txapela emateko ohorea. Hala, Arabako Bertsotzale Elkarteak lurraldeko bertsozaletasunari "eman dion guztia" eskertu nahi izan diola adierazi du. Bertsolari, irakasle, epaile, gai jartzaile eta antolatzaile moduan aritu izan da azken hamarkadetan Rico, eta 1984an Arabako lehen Txapelketan parte hartu zuenetako bat izan zen. Bestek beste, oholatzaz baliatu da Rico beste behin aldarrikatzeko hiriburuko euskalgintzak Gasteiz Antzokiaren "epelaren" beharra duela.

Ohi bezala, bertsolariek izan dituzten erronkak ez dira makalak izan. Tartean, besarkada batean bukatzen den dibortzio utopikoa, loreak ureztatu beharrean oporretan anaiari etxea okupatu dion laguna, edota Asterixek eta Obelixek Korrikarekin topo egin duteneko. ■■■■





**ASTE SANTUKO
OPOR PROGRAMA
jolastera...**

Alegria-Dulantzi

**PROGRAMA
VACACIONAL
SEMANA SANTA
a jugar...**

Apirila/Abril 2024



Kultur Etxean / Casa de Cultura

TAILERRAK FAMILIAN. Aurpegi margokera, sukaldaritza eta zientzia tailerrak. Asteazkena, 3. 17:00-19:00.

TALLERES EN FAMILIA. Pintacaras, talleres de cocina y ciencia. Miércoles, 3. 17:00-19:00.



Kiroldegian / Poldeportivo

JOLAS SAIOA. Kirol anitzeko jokoak
Asteartea, 2 eta osteguna, 4. 17:00-18:30

SESIÓN DE JUEGOS. Juegos multideportivos
Martes, 2 y jueves, 4. 17:00-18:30



Kultur Etxean / Casa de Cultura

TAILERRAK FAMILIAN. Aurpegi margokera, sukaldaritza eta zientzia tailerrak. Asteazkena, 3. 17:00-19:00.

TALLERES EN FAMILIA. Pintacaras, talleres de cocina y ciencia. Miércoles, 3. 17:00-19:00.



Herriko Plazan / En la Plaza

HAUR-PARKEA. Kermese-Puzgarriak
Ostirala, 5. 17:00-19:00

PARQUE INFANTIL. Kermese-Hinchables
Viernes, 5. 17:00-19:00

Ezaugarriak
Dusko jarduerak eta parte-hartze libreak. Aitzal diru, 6 eta 9 urte bitarteko haurrek. Parte hartzen duten haurrek familiak bukaritzapen eta tutoretzapen egongo dira.

Características
Actividades gratuitas y de participación libre. Preferentemente niños y niñas de 6 a 9 años. Los niños y niñas participantes estarán bajo la supervisión y tutela de sus familias.

ALEA 25



"Altuera ere erlatiboa izan daiteke", AA-ren arabera. DALL-E, BING

Altuera (ere erlatiboa da)

HARRIMENA LANTZEKO ARIKETAK

Dibertigarria izan daiteke egiaztatzea daturik zehatzenak ere erlatiboak direla batzuetan. Ez naiz ari, greba baten testuinguruan, sindikatuen eta patronalaren arteko zenbaki-gerrez; ez eta, hauteskunde giroan, hautagai bakoitzak ematen duen datu propioaz ere.

Hain transzendentalak ez diren bestelako egitate mota batzuei buruz ari naiz. Adibidez, *o meu companheiro* Pessoaaren altuerari buruz. Lisboatarrak paperean idatzi zuen metro bat eta hirurogeita hamar zentimetroko garaiera zuela. Halarik ere —Pessoak berak ohartarazi didanez—, Internetek dio hiru zentimetro altuagoa zela.

Nik ere ezagutu dut —Mileva Mari gogoan— neure altueraren erlatibitatea. Hondurasen. Duela hogeitaka urte. Orduan, nire garaieraren datua ez zen aldatu, bai, ordea, balorazio soziala: bertakoen hitzetan, "alto" nintzen; bai eta "barbón" ere, bide batez. Hemen, alabaina, baxutxo eta bixarguria naiz aspalditik.

"Ikusten dudaren neurrikoa naiz", idatzi zuen Pessoa. Zientzia egiteko asmorik gabe. Txundigarriro asmatuz. ■■■



EDU ZELAIETA ANTA

IRULEA



araba euskaraz '24 mugaezin

Ekainak 16. Olarizu

Martxoak 6:

Porrotx eta Marimotots, Oion.

Martxoak 10:

Ikastolak Herriari; Non eta Mugan, Beskoitze.

Apirilak 10:

Araba Euskaraz 2024 Abestiaren aurkezpena, EHU Gasteiz.

Apirilak 12,19 eta 26:

Araba Euskaraz 2024 Masters Series (Jai Alai league),
Gasteiz.

Maiatzak 18:

Mugaezin Jaialdia, Oion.

Maiatzak 25:

Golazen 10 kontzertua, Amurrio.



www.arabaeuskaraz.eus



ikastolenelkartea

EGUNERO IKASTEN DELAKO

Dagoeneko aurkeztu dituzte Arabarako hautagaien zerrendak; guztiek erabili dituzte eszenatoki argitsu eta koloretsuak, eta telebistan agertu dira irribarretsu eta ziur. Herrialdeko zerrendaburu gehienak gizonak eta gazteak dira, alde horretatik ez dago disonantzia handirik alderdien artean. Batzuk euskaldun petoak dira; beste batzuk ez hainbeste; gehienak unibersitateko tituludunak.

Halako gauzekin konturatzen naiz beste mende batekoa naizela. Bai. Pasa den mendean, legebiltzarrerako Herri Batasuneko zerrendan parte hartu nuen. Orduko kanpainak oso ezberdinak ziren. Araba zeharkatzen genuen karabana prekario batekin, eta herrietako militanteek ekitaldiak prestatzen zituzten.

Mati Iturralde, 'Mesedez, gezurrik ez', ALEA
2024-03-01



Erreparatu honi

DAGOENeko/HONEZKERO

Denborazko aditzondook ez dira baliokideak.

Dagoeneko hitzak, inork ikusia edo jakina duelako, ziurtzat jotzen du adierazia. *Bulegotik nator, eta Uxue dagoeneko han dago* (ziur naiz diodanaz). Tankerakoak dira hauek ere: *Hiruretan bazkaldu du, eta dagoeneko hor ari da igerian*. *Dagoeneko gainean ditugu azterketak*. *Udan gaude dagoeneko*.

Honezkerok, berriz, uste, susmo edo aierua adierazten du; supositiboa da erabat, ziurtatu gabeko ustearen agergarria. *Bulegora noa, Uxue honezkero etorriko zen eta* (uste horretan nago). Gisa horretakoak dira hauek ere: *Gure Antonek honezkero hirurogeita bosten bat izango ditu*. **Dagoeneko hasiko zen saioa* (Honezkero hasiko zen saioa).

Lehenaldiari begira inoiz agertzen den **zegoeneko*, berriz, forma guztiz berria da, eta ez da bultzatzekoa: **Dardarka ari banintzen ere, zegoeneko (ordurako/dagoeneko) ez nuen hotzik sentitzen*.

Iturria: Euskaltzaindia.eus



Bi ordu eman ditugu lagunen zain, eta honezkero nazkatu gara.
Zer ordu ote da? Dagoeneko laurak izango dira.
Jaialdia bukatu da. Honezkero ez dago inor bertan.



Bi ordu eman ditugu lagunen zain, eta dagoeneko nazkatu gara.
Zer ordu ote da? Honezkero laurak izango dira.
Jaialdia bukatu da. Dagoeneko ez dago inor bertan.

Asteko galdera

ZEIN DA ZUZENA?

- a) Adeitasunez, agurtzen naiz.
- b) Azkar-azkar agurtu ginen lagunengandik.
- c) Adeitasunez, agurtzen zaitut.

Galdera erantzun eta lehiaketan parte har dezakezu ALEAren webgunean:
alea.eus/bereziak/ikasiz



PARTE HARTU



Gasteizko **ika** ren eskutik

Adriano VI.a 18 beheka 01008 Gasteiz

945154341

gasteiz@ikaeuskaltegiak.eus

ALEAKIDEENTZAKO ZOZKETAK



ANARI

Bi sarrera solte

Apirilaren 11n, Anarik disko berriaren kontzertua eskainiko du Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, 21:00etatik aurrera. Jimmy Jazz Gasteiz aretoaren laguntzarekin, ALEAK bi sarrera solte zozkatuko ditu ALEAkideen artean. Parte hartu apirilaren 2a baino lehen. Apirilaren 5eko ALEAn argitaratuko ditugu irabazleen izenak.



PARRAL TABERNA

Bi lagunentzako bazkaria

ALEAK bi lagunentzako bazkari begetariano bat zozkatuko du Gasteizko Alde Zaharrean dagoen Parral tabernan, astean zeharreko menua bazkaltzeko. Parte hartu martxoaren 26a baino lehen. Apirilaren 5eko ALEAn publikatuko ditugu irabazlearen izena.



FLORIDA ZINEMAK

Bi sarrera bikoitz

Florida zinemetan edozein pelikula ikusteko bi sarrera bikoitz zozkatzen ditu ALEAK, ALEAkideen artean. Parte hartu martxoaren 26a baino lehen. Apirilaren 5eko ALEAn argitaratuko ditugu irabazleen izenak.

Aurreko irabazleak

FLORIDA ZINEMARAKO SARRERAK

Cristina Redondo Lasaga
Arrate Zapateria Garcia

RAIMUNDO EL CANASTERO ETA KAPARRAK TALDEAK IKUSTEKO SARRERAK

Mikel Anton Casamitjana
Leire Barbero Echabe

Indarrean dagoen legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Arabako Alea Komunikazio taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

 aleaKIDE



Zozketetan parte hartu, abantailak gozatu eta gure proiektuari babesa eman nahi badiozu aukera ezberdin ugari duzu. Izan zaitez ALEAkide!

AGENDA

Martxoaren 22tik 28era

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

BERTSOLARITZA

LANDA Bertso afaria

Aroa Arrizubieta eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin. Korrika Kulturaleko jardueren artean.

Ostirala 22, 21:00etan, Etxezuri jatetxean.

MUSIKA

GASTEIZ Iheskide

'Lubakietan batuz' lana aurkeztuko dute.

Larunbata 23, 20:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

HAURRAK

GASTEIZ Feltrozko piezak

Feltrozko piezak egiten ikasteko tailerra. 8-12 urte.

Larunbata 23, 11:00etan, Iparralde gizarte etxean.

GASTEIZ 'Amal' ikuskizuna

Bi emakume ametsez, ilusioz eta itxaropoz beteriko bidaia batean murgilduko dira, baina ez da beti erraza izango. 8 urtetik gora.

Igandea 24, 18:00etan, Principal antzokian.

ANTZERKIA

ARAIA 'Ztandap'

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairen umore ikuskizuna.

Ostirala 22, 19:30ean, batzar aretoan.



'NEGU HURBILAK'

AGURAIN 'Negu hurbilak' pelikula

Negu Kolektiboaren lehen fikziozko lana.

Igandea 24, 19:00etan, Harresi aretoan.

GASTEIZ 'Memoria'

Oroimenari eta haren galerari buruzko antzezlan. Itziar Manerorekin.

Zurrumbilo jaialdiaren barruan.

Larunbata 23, 20:00etan, Baratzan.

GASTEIZ 'Artxibo biluzia'

Konferentzia performatiboa, dokumentu-antzerkia eta umorea uztartzen dituen pieza eszenikoa.

Zurrumbilo jaialdiaren barruan.

Igandea 24, 19:00etan, Baratzan.

BESTELAKOAK

ARAMAIO Korrika Eguna

Korrika txikia, poteo-kalejira, afaria, karaokea, kontzertua eta beste hainbat jarduera izango dira.

Ostirala 22, 11:00etatik aurrera.

GASTEIZ Zeramika tailerra

Engobe teknikak aztertu eta praktikatuko dituzte, berrerabil

daitezkeen buztinezko gainazaletan. Gauekoak egitasmoaren barruan antolatutako ekitaldia.

Ostirala 22, 17:30ean, Hegoalde gizarte etxean.

GASTEIZ Garagardo dastaketa

Artisau garagardoak dastatzeko saioa.

Ostirala 22, 18:30ean, Iparralde gizarte etxean.

GASTEIZ Mintza-ibilaldia

Gasteizko mintzalagunek bi ordu inguruko bidaia egingo dute Arkaia ingurura. GEU elkartearen eskutik.

Igandea 24, 10:00etan, Arka plazatik abiatuta.

Euskararen Agendako hitzordu guztiak ikusteko:

alea.eus/agenda

APIRILAK 11

APIRILAK 25

**HILABETE
GASTRONOMIKOA**

ELKARTEA
GEU

SORPRESA ASKOREKIN!!

APIRILAK 26

**MIKRO
IPUINAK**

www.geuelkartea.eus



**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**

Arraga, 2 | Aramaio
Telf: 945 44 53 85 - 685 72 15 93
info@iturrieta.eus
www.iturrieta.eus



23. ^{dek} korrika

**HARRO
FERRI**

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra



Kuartango
SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
Zuhatsu-Kuartango 21
t.699 747 730 · 945 362 683



Servicio de autobús

TREBIÑU Sagardotegia

945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Arabak,
arabako sagardoa!